

## **Euskaltzaindiko jaun-andre agurgarri maiteok:**

Bihotz-bihotzez eskertzen dizuet ni erakunde argi honetako ohorezko kide izendatzeko hartu duzuen erabakia. Euskaltzaindiak euskara ikertu eta bultzatzeko ia mende batean burutu duen lana erreferentziazkoa bihurtu da mundu guztiko hizkuntzalari eta mintzairen aldeko aitzindarientzat, eta, beraz, ohore handitzat daukat, nolabait ni ere lan horien partaide izatea.

Segur asko guztiok dakizuenez, nire jardunaren esparrua amerindiar hizkuntzena izan da, eta, are zehazkiago, Kolonbiako indigenen hizkuntza jatorrak aztertu eta bultzatzea. Erbestean jaioa naiz eta gure herriak orduan bizi behar izan zuen egoera latzak era guztietako ondorioak eman ditu. Niri dagokidanez, Hego Amerikan luzaro bizi beharrak nire nortasun bikoitzetik, -nire gurasoen aldetik euskalduna eta nire gaztaroko gizarte- eta kultura-ingurune guztiarengatik frantsesa-, amerindiar herrienganako atxikimendu sakona sorrarazi zuen, haien kulturen eta, oso bereziki, haien hizkuntzen aldeko interes eta ardura handia.

Bizikidetasun-urte asko izan dira, ikaste- eta borroka-urte ugari. Maiz aurretik susmatu gabeko antz argigarriak agertzen ziren euskararen egiturekin, bai eta bera gutxiengo baten baserri-mintzaira izateko egoerarekin ere. Beste anitz kasutan, ordea, ezberdintasunak ere nabarmenak izaten ziren. Gaur batzar argi honetara orain arte burutu dudana dakarkizuet. Zeuen zerbitzuan naukazue, zeuen bokazio bikoitz eta eder horretan lagundu ahal dizuedan guztian apalik eskua luzatzeko prest, alde batetik gure herriaren hizkuntz tradizioaren jagole eta, bestetik, denbora berriek aldean dakartzaten adierazpide berrien emagin.

Nire errespetu osoarekin,

Jon Landaburu Illarramendi  
Bilbon, 2014ko uztailaren 18an